

Ostadar bikoitzaren sekretua

Zientzialariek aspaldi aurkitu zuten zein zen ostadar arrunta sortzeko sekretua. Alabaina, ostadar bikoitzarenak misterio bat izaten jarraitu du, duela gutxira arte. Hain zuzen, ostadar bikoitzak nola sortzen diren azaltzen duen artikulua bat argitaratu da *ACM Translation on Graphics* aldizkari espezializatuan.

Artikulu horren arabera, sekretua ur-tantaren itxuran dago: haizearen eraginez, euri-tanta handi batzuek itxura zapala hartzen dute. Argi-izpiek haietan jotzen dutenean, tanten geometria irregularra dela eta, argia bi angelutan islatuta ateratzen da. Horren ondorioz, bi ostadar agertzen dira zeruan. Ikertzaileek ordenagailu bidezko simulazioei esker lortu dute hori frogatzea. ●



ARG.: NICHOLAS/©ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA ⓘ

Otso iberikoaren populazioek dibertsitate genetiko txikia dute

Otso iberikoa ez dago desagertzeko arrisku bizian, baina, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Doñanako Estazio Biologikoko adituek egindako ikerketa baten arabera, arriskuan egotera irits daiteke, otso-taldeek dibertsitate genetiko txikia dutelako.

Egia da otsoaren populazioak gora egin duela azken urteetan. 60ko eta 70eko hamarkadetan minimo bat izan zuen; adituek kalkulatu dute 500 ale bizi zirela orduan, eta gerora kopuruak gora egin du. Gaur egun, uste dute 2.000 otso iberiko daudela, gutxi gorabehera. Hala ere, biologoak

kezkaturik daude, etorkizunean irauteko, ale asko izateaz gainera, espezie guztiek dibertsitate genetiko izan behar dutelako. Populazioak isolatuta daudenean, elkarrekin gurutzatzeko aukerarik izan gabe, ez da gertatzen material genetikoaren trukea, eta horrek endogamia-arazoak eragiten ditu.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Doñanako Estazio Biologikoko adituek otso iberikoaren populazioak XX. mende osoan zehar izan duen gainbehera aztertu dute, eta, horrekin batera, gaurko otso-taldeek azterketa genetikoak egin dituzte. Haien arabera, otsoaren egoera uste baino okerragoa izan zen 60ko eta 70eko hamarkadetan, eta horregatik dute gaur egun dibertsitate genetiko oso txikia. Taldeak Errusiako otsoak ere ikertu ditu, eta ikusi du hango populazioek ez dutela izan hemengoan adinako gainbehera eta haien dibertsitate genetiko hobea dela. Eta hala izan arren, hango otso-taldeak ere nahiko isolatuak daude, eta epe luzean haiek ere arazo genetikoak izan litzakete. ●



ARG.: GABRIEL GONZALEZ